

Lehiaketaren Oinarriak

Argazki lehiaketaren gaia "**Euskal Herria zure begietatik / Euskal Herria bajo tu mirada**" da.

Aurkezten diren argazkiak **Euskal Herrian aterakoak izan beharko dute**, eta **2023ko azaroaren 1etik aurrera ateratakoak** izan beharko dira.

Partehartzea librea eta doakoa da. Elkarte antolatzailearen (ARTGAZKI) kideek ere parte hartu ahal izango dute, zuzendaritzako arduradunak barne, beti ere lehiaketaren epaimahaiari ez dauden bitartean.

Hiru argazki bidali ahal izango dira gehienez ere, helbide honetara:
lehiaketak@artgazki.org.

Argazkiak aurkezteko epea **2024ko azaroaren 13an (asteazkena), gaueko 22:00H**-etan amaituko da.

LEHIAKETAKO ARGAZKIEK BETE BEHARKO DITUZTEN BALDINTZAK:

Argazkiak ahalik eta kalitate handienarekin bidaliko dira, jatorrizko proportzioan eta JPEG formatuan.

Argazkiak koloretakoak zein zuri-beltzekoak izan daitezke.

Bidaltzen diren argazkiekin batera hurrengo datu hauek adierazi beharko dira: Egilearen izen-abizenak, helbide elektronikoa, telefonoa, argazki bakoitzaren izenburua eta non aterata dagoen.

Partaideek lehiaketara aurkezten dituzten argazkien egileak direla bermatuko dute.

Aurkeztutako argazziek ezin izango dute inprimatuta eraman ez egilearen izenik ezta beste inolako anagrama edo ikur identifikatiborik ere.

Ez dira onartuko adimen artifizialaren (IA) bitartez edo honen laguntzarekin sortutako argazkiak, ezta fotomuntaketa ere.

Ezingo dira aurkeztu jadanik beste lehiaketa batzuetan sarituak izan diren argazkiak.

ARGAZKI IRABAZLEEN AUKERAKETA:

Argazkigintzan eta irudigintzan kualifikatutako epaimahai batek aukeratuko ditu argazki irabazleak. Epaimahaiak, besteak beste, teknika, originaltasuna, estetika edo sormena bezalako kriterioetan oinarrituko ditu bere erabakiak.

Oinarri hauekin bat ez datozen lanak baztertzeko ahalmena izango du epaimahaiak.

Epaimahaiak lehiaketatik kanpo utz litzake oinarri hauek betetzen ez dituzten argazkiak.

Epaimahaiaren erabakia, gehienez ere, argazkiak entregatzeko epea amaitu eta zazpi egunetara jakinaraziko da.

ARGAZKI IRABAZLEENTZAKO SARIAK:

1. **saria:** garaikurra eta 300 €.
2. **saria:** garaikurra eta 200 €.
3. **saria:** garaikurra eta 100€.

Sari banaketa presentzialki eta eskura egingo da abenduan, behar bestekourrerapenarekin jakinaraziko den lekuan eta egunean.

AURKEZTUTAKO ARGAZKIEKIKO ESKUBIDEAK:

Lehiaketaren antolatzaileek eta babesleek irudiak erabiltzeko eskubide EZ ESKLUSIBOA izango dute. Horrela, informazio eta sustapen helburuak dituzten ekintzetan erabili ahal izango dituzte argazkiak, eta lehiaketara aurkeztutako edozein argazki erabili ahal izango dute argazki erakusketak antolatzeko, beti ere argazkien egileen izenak adieraziz.

LEHIAKETARA AURKEZTUTAKO ARGAZKIEN ERAKUSKETA

Sarituak suertatzen diren argazkiez gain, epaimahaiak lehiaketara aurkeztutako beste hainbat argazki ere aukeratuko ditu, guztiekin argazki erakusketa bat antolatzeko.

Erakusketarako inprimatuko diren argazkiak salgai egongo dira, eta salmenten bidez jasotzen den zenbateko guztia MARA CLN1 egitasmoari emango zaio, Lipofuscinosis Neuronal Ceroidea gaixotasunari aurre egiteko.

ARGIZAIOLA-N PARTE HARTZEKO BALIO DUEN LEHIAKETA

Lehiaketa honek ARGIZAIOLA lehiaketaren 45. ekitaldian parte hartzeko onespenu dauka, **13/2024 babesletza zenbakiarekin**.

Argizaiola lehiaketaren oinarriak hurrengo estekan kontsultatu daitezke:

<https://federacionfotovasca.org/eu/argizaiola/bases-argizaiola>

Horrela, egoitza Euskal Herrian daukaten lehiaketako lehen 3 sailkatuek ARGIZAIOLA lehiaketan parte hartzeko gonbidapena jasoko dute.